

## UDALBATZARI

## AL AYUNTAMIENTO PLENO

**IRABAZI DONOSTIA taldearen Arau Proposamena, Udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.**

**Proposición Normativa del Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal.**

Udaleko IRABAZI DONOSTIA Taldeko bozeramaileek, 2016ko abuztuaren 16an -irailaren 1ean zuzendua-, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza dela eta:

La Portavoz del Grupo IRABAZI DONOSTIA presentó con fecha 16 de agosto de 2016 - corregida el día 1 de septiembre- la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal:

“Iaz, udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko tasa igotzea proposatu genuen; zehazki, finantza entitateek kutxazainak bide publikoan jartzeko erabiltzen duten jabari publikoari dagokion tasa. Proposamena aho batez onartu zen. Uste dugu aurten tasa hori berriro igo egin behar dela, kontraesana iruditzen baitzaigu udal gobernuak tasen eta zergen igoera orokor bat planteatzea eta ez ukitzea udal jabari publikoa erabiliz etekina ateratzen duten finantza erakundeei dagokiena. Gainera, kontuan izan behar dugu, bide publikoa okupatzeaz gainera, gastu batzuk ere sortzen direla, Udalak bere gain hartu behar dituenak, garbiketari eta herritarren segurtasunari loturikoak.

“El pasado año planteamos una subida de la Tasa por la utilización privativa y el aprovechamiento especial de dominio público municipal, en relación al espacio público utilizado por las entidades financieras a través de la colocación de cajeros automáticos en la vía pública. La proposición fue aprobada por unanimidad. Consideramos que este año nuevamente tal tasa tiene que incrementar ya que resulta contradictorio que el gobierno municipal plantee una subida generalizada de tasas e impuestos y decida no tocar la relativa a un uso del espacio público por parte de entidades financieras que se lucran con el uso de dicho espacio. Además, es preciso señalar que no sólo se produce la ocupación de la vía, sino que se generan unos gastos derivados del mantenimiento de la limpieza y seguridad ciudadana que corren a cargo del Ayuntamiento.

Auzitegi Gorenak, 2009ko otsailaren 11n eman zuen epaian, babestu egiten du udalek tasa bat kobratzea finantza erakundeei bide publikoan dituzten kutxazain automatikoengatik. Izan ere, auzitegiarentzat, kutxazainak “finantza erakundeen premiazko bulegoak” dira, etenik gabeko zerbitzua eta, hortaz, etekin ekonomikoa eskaintzen dutenak.

Hay que recordar que el Tribunal Supremo en Sentencia de 11 de febrero de 2009 avala que los Ayuntamientos cobren a las entidades financieras una tasa por los cajeros automáticos que se sitúan en la vía pública dado que el Alto Tribunal consideró que “constituyen auténticas oficinas de urgencia de las financieras” que ofrecen servicios de forma continua y obtienen el consiguiente provecho económico.

Uste dugu gaur egun aplikatzen den tasa ez dela nahikoa bide publikoan 24 orduz eskaintzen den zerbitzu baterako. Txosten teknikoak azaltzen duen moduan, “tasa honen prezioak kalkulatzeko, merkataritzako m<sup>2</sup>-aren prezioaren eragina eta espazioaren erabilera intentsitatea hartzen dira kontuan”.

Consideramos que la tasa que se aplica en la actualidad es insuficiente para un servicio ofrecido en la vía pública 24 horas al día, tal y como el Informe Técnico indica, “los precios de esta Tasa están calculados sobre la repercusión del precio del m<sup>2</sup> comercial, y la intensidad de uso del espacio”, indicando que “hay margen para aplicar el incremento propuesto”.

Hori dela eta, honako ERABAKIA hartzea proposatzen dugu:

Por todo ello, proponemos el siguiente ACUERDO:

- % 25 gehitzea honako honi dagokion tasari: udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren eranskineko 34. puntua, c) atala (Udal bide publikoen gainaren aprobetxamendu berezia), 2. epigrafe (Jabari edo erabilera publikoko bideen edo gainerako lurren azpia eta gaina

- Aprobar un incremento de un 25% de la Tasa relativa al punto 34 del apartado c) Aprovechamiento especial del suelo del epígrafe 2. Aprovechamiento en el suelo y subsuelo de las vías públicas y demás terrenos de dominio o uso público, del Anexo de la Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial de dominio

aprobetxatzea). Beraz, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izango duen eranskinean hau agertuko da:

público municipal, de manera que en el Anexo a regir a partir del 1 de enero de 2017 figurará lo siguiente:

c) Udal bide publikoen gainaren aprobetxamendu berezia

c) Aprovechamiento especial del suelo

Okupazioaren ezaugarriak Características de la ocupación	Kalearen kategoria Categorías de calle					
	1.	2.	3.	4.	5.	6.
34. Gordailu erakundeek edo beste finantza erakunde batzuek fatxadetan jarritako kutxazainen aprobetxamendua, eta fatxadaren lerroan jarrita dauden eta bide publikoan saltzen duten beste auto-zerbitzu batzuen. Instalazio bakoitzeko eta hilabeteko edo zatiko; instalazioa, betiere, salmenta edo zerbitzu publiko beregaina dela. 34º Aprovechamiento con cajeros automáticos instalados en fachadas por entidades de depósito u otras entidades financieras y otros auto servicios instalados en la línea de fachada que expenden a la vía pública. Por cada instalación y por mes o fracción, entendiendo por instalación cada punto independiente de servicio al público.	43,63	39,25	34,88	30,55	26,18	21,78

Ogasun Batzordeak, 2016ko irailaren 15eko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

En sesión de 15 de septiembre de 2016, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udaltzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

**ERABAKIAK:**

**ACUERDOS:**

**LEHENA:** Onartzea Udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren Eranskina aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

**PRIMERO:** Aprobar la modificación del Anexo de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del dominio público municipal, descrita en la parte expositiva.

**BIGARRENA:** 2017ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailearen 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

**SEGUNDO:** Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2017, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2016ko irailaren 16a

San Sebastián, 16 de septiembre de 2016

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA  
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA